

Nafarkaria

• ostirala • 2000ko abenduaren 22a

Egunkaria

Gehigarri honetan



Gure Aukerak • Olentzerok opariak eta ikatza banatuko du Nafarroako hainbat herritan gaur eta etzi bitartean
Juan Carlos Pikabea • «Kolorea da garrantzitsuena, giro berezi bat sortzea»

Baztango haurrak, sarean



Baztan ibar berdeko haurrak sareratu dituzte. Haurrak ordenagailuen eta Interneten erabileran trebatzeko egitasmoan ari dira Baztango hamar eskola publikoak. Hamarren artean K@zet@ izeneko aldizkari elektronikoa egiten dute, eta

batzuek, Zigakoak adibidez, beren webgunea dute. Baztan berdean arrunt ordenagailu guti dira etxeetan. Eskolan ezagutzen dute hurrek ordenagailua, baina ez dira gaizki moldatzen. Akaso, irakasleek arazo gehiago dituzte.

Baigorri

Bil Etxea kolegioko ikasleek antzerkia eskainiko dute gaur eta bihar

Bil Etxea Baigorriko eskola pribatueta-ko ikasleek eta erakasleek Etxauzko jauregiaren historia berriro gaitzat hartu dute lan zabala eramateko. Izan ere, Internet gunea sortu ondoren, 82 ikasleek lan egin dute Baigorriko jauregiaren historia lantzeko.

Etxauzko jauregiaren historian zehar



Bil Etxea kolegioko ikasleek Etxauzko jauregiaren historia eskainiko dute gaur eta bihar. ● C.P. SAMARUTTI

HELBURUA ZEN ETXAUZKO historia aurkeztea antzerki baten medioz. Hiru hilabetez lan egin ondoren, Bil Etxeko ikasleek antzeztuko dute beren lana ostiral arratsean eta larunbat arratsaldean, Bil Etxean.

Ikusgarria egiteko proiektua bultzatu zuen Etxauzko adiskideen elkarteak. Izan ere, Baigorriko jauregiaren historia aberatsa da, batez ere izan dituen ja-beengatik, eta elkarteak nahi zuen historia ezezaguna zabaldu. «Gazteluaren historia aurkezteak zailtasun anitz pausatzen ziren hasieran, historia aberatsegian galtzeko arriskua baitzen», adierazi zuen Mikel Erramouspe Bil Etxea eskolako zuzendariak. Bestalde, aurrekon-

tua murriztua izanez, hautu zorrotza egin behar zen mendeetako gertakarien artean.

Lau zatik osatuko dute antzerkia, eta Baigorriko balearen gertakari garrantzitsuak ezagutzeko aukera emanen dute. Izan ere, jauregiko pertsonaia ospetsuak ildotzat hartuz, antzerkiak kokatuko ditu gertakariak garai-ko giroan, eta egoera politikoa ere aztertuko du. Alabaina, historiako gertakarien bi irakurketa egiten ahalko da. «Historia arrunta aurkeztu ordez, nahi genuen gogoeta bultzatu historia-ko egoeraz, ikertzeko zergatik historia egiten den», azaldu zuen kolegioko zuzendariak.

Kronologiari jarraikiz, antzer-

kiaren lehen zatiak aipatuko du 1212ko Tolosako Las Navasen bataila. Urte horretan, Etxauzko jaunak eta Baigorriko etxe handietako semeek bat egin zuten Santxo Azkarrarekin Miramolinen aurkako borrokan. Antzerkiaren bigarren zatia iraganen da Parisen, 1614an. Bertan ikusiko da nola Etxauzko Bertrand apezpikuak zehaztu zizkion Luis XIII erregeari Nafarroako mugak finkatzeko zailtasunak. Beste hiru mendeko bidaia egiten da hirugarren zatian sartu baino lehen, 1931ko agorrilean. Harry D'Abbadie jauregiko jabeak gomiatu zuen Charlie Chapin adiskidea Baigorriko gaztelura, bi pertsonalitate handien arteko

harremanak okertu arte. Azkenean, laugarren zatiak gaurko jabeak aipatuko ditu. Gaztelua osoki funditua eta suntsitua izari ondoren, ikasleek aurkeztuko dute gazteluaren konponketa obrak.

Ikasle eta irakasle guztien trebetasuna eskatua izan da antzerkia sortzeko. Izan ere, ikerketa historikoak egin ondoren, denek lanari ekin diote jantziak edo apainketak egiteko, dantzak edo kantuak lantzeko, edo testuak gogoz ikasteko. Gurasoek ere parte hartu dute prestakuntzan, eta salduko dituzte taloak, egindako gastuak ordaintzeko.

→ Lutxi Fourcade

Zangoza

'Zangotzarra'-ren laugarrena kalean

Zangozako Enrique de Albret kultura taldeak laugarren urtea egin du aurten eta, ohiturari jarraituz, *Zangotzarra* aldikariaren zenbaki berria karrikaratu dute, 4. alegia.

Zangoza hiriaren inguruko kontuak biltzen dituzten ikerketa edo azterketa lanen lehiaketa antolatzen dute urtero, eta lan horietan dira *Zangotzarren* oinarri. Aldikariaren laugarren zenbaki honek zazpi lan biltzen ditu.

David Marurik Aurelio Erdozain zangozarren inguruko lana osatu du. Erdozain, Enrique de Albret taldeko lehendakaria, duela hilabete guti zendu zen. Bruno Jimenezek Vallejos abizeneko hiru musikariren gainean idatzi du. Carlos Mata Indurainek Raimundo Lumbier karmeldarraren lana aztertu du. Carlos Solak Zangozako eta Nafarroako XVI-XIX. mendeetako legediak erkatu ditu. Enrique Galdeanok Santa Maria la Real elizako atarian diren fidulak (biolin antzeko tresna) ikertu ditu. Alvaro Adotek, Zangozak errege egoitza bezala izan zuen garrantzia. Eta, azkenik, Juan Cruz Labeagak Zangozako herri erlijioasunaz hitz egin du.

Otsailean ikerketa lanen lehiaketa berrirako deia egiten dute, eta urte bukaeran *Zangotzarren* bosgarren zenbakia aterako dute. Gainera, zenbaki horretan aurtengoan sartu ez dituzten bi lan argitaratuko dituzte. Era berean, kultura taldekoek iragarri dutenez, Zangozako hilarrien eta pieza arkeologikoen erakusketa iraunkorra antolatu nahi dute.

→ Daniel Urrutia

bi hormetara

JOSETXO AZKONA



Gonbidapena egin nahi diot irakurle horri, nahi izanez gero, elkarrekin jauzi egin dezagun baso aldera, bertan kokatzen den Matxinea baserri bakartua bisitatzearren. Sar gaitezen barrura, zaratarik egiteke, mesedez.

Antonio deritzan agure zahar bat badago supazter txokoan, bera bezain zaharra den egurrezko mezedora batean eserita. Betazalak itxita dauzka, eta, hala ere, badirudi suari so egiten diola. Aldian behin, eta eskuetako hatzak balliatuz, begiak igurtzen ditu gogotik. Bitartean, gorputza, soin mehe hori, aurrera eta atzera botatzen du, mezedorarekin batera, noski.

Baina, zertan ari da Antonio, zer gertatzen zaio gizon horri?

Txinpartak

Antonio, firin-faran batean bizi izan da jaiotz geroztik, beti baserriko lantegiari emana, aziendari beti makurturik; behiak burutik sano zireneko garaikoa baita. Pozkaririk ere izan du bere bizitzan; dena dela, ezagutu duen poz bakarra, poz intimoa, gaueko suak eman dio, supazter txokoan izan delako beretzat eguneroko babesle eta atsedena.

Orain, berriz, ez ditu sugarrak ikusten ahal; ez da gauza, hitz batean, suak pago hezea hartzen duenean botatzen dituen txinpartak antzemateko ere. Zeren Antonio, agure zaharra, itsu geratu baita begietako gaitz larri bat tarteko; glaukoma dauka aspaldi, finean.

Supazter txokoan, agurearengandik gertu, egur puska on bat ere ikusten da suaren abaroen. Lehor dadin paratua, nonbait.

Bi egunen buruan, igande arratsaldean, hain zuzen, enbor hori pitzen dutenean, berriro igurtziko ditu begiak gure agureak, eta izar txikitxoak agertuko zaizkio barrenean, han non —dirudienez— memoriari tinko atxikia baitauka suaren irudi pozgarri behialakoa.

Eta hala omen da. Izan ere, bizi-poza erakarri duen guztia, goiz zein berandu, beti itzultzen baita norberarengana.

Memorian, bai, igurtziaren igurtziz; iluntasunean barne-txinpartak sorrarazi arte.

Baztan •

Alkate juradoen hautaketa

BAZTANGO BATZAR OROKORRA lau aldiz biltzen da urtero. Urtarrilaren 6an izaten da lehenengoa, Errege egunean, eta ordurako, herri guztiek kontuak aurkezteaz gain, alkate jurado berria zein den adieraziko dute. Ordurako herriren batean hautagairik ez bada aurkeztu, Baztango alkateari egokituko zaio pertsona bat bilatzea, hilabete bateko epean.

Alkate juradoek egun ez daukate eskumenik, udalaren eta herriaren arteko bitartekari soilak dira, eta horregatik, herri aunitzetan arazoak daude alkate juradoak aurkitzeko.

Erran bezala, Eguberri egunaren aitzineko igandean egiten da batzarra herri guztietan. Hautagairen bat badago, zuzenean izendatuko dute alkate jurado; bi edo gehiago baleude, herritarrek goizeko 10:00etatik arratsaldeko 17:00ak arte eman ditzakete bozak. Hautagairik egon ezean, Urteberri egunean batzarrera deituko dute berriro; berriz ere inor aurkeztuko ez balitz, urtarrilaren 6ko Batzar Orokorra arte luzatuko litzateke epea.

Azken bi urteetan, Elizondoko alkate jurado Anastasio Nagore izan da, eta ez da berriro aurkeztuko. «Herriei botere ekonomikoa eman beharko liekete, autonomia eduki dezaten; orain, juradok konpartsa hutsak gara, eta ezin dugu erabakirik hartu», kexu azaldu da Nagore. Alkate juradoek herrien beharrak gestionatzen dituzte, baina erabakiak udalak hartzen ditu. Botere ekonomiko osoa, beraz, Udalek dute. «Paperak aurkezteaz gain, gutxi gehiago egin dezakegu», adierazi du



Anastasio Nagore zinpeko alkatea (ezkerrean, zutik), Isabel Gaztelumendi, Raul Garate, Mari Carmen Iribarren eta Agustin Larretxea kargudunekin. • RAKEL GOÑI

Igandean izanen da hautaketa Baztango herri guztietan

Baztango balleak alkate bakarra dauka 15 herrientzat. Hala ere, herri bakoitzean bi urterik behin alkate juradoa deritzona hautatzen da, Eguberri egunaren aitzineko igandean egiten den batzarrean.

Anastasio Nagorek. Elizondoko herriak, adibidez, aurten 1.200.000 pezeta jaso ditu gastu orokorrenzat; kontuan hartuta 2.700 bat biztanle daudela, erabat mugatua da juradoaren gestioa. Hori dela eta, Elizondoko kuota bat ezartzea erabaki zuen alkate juradoak. Honela, Orakunde eguna, bestetako gastuak eta beste zenbait ekital-

di ordaindu ahal izan dira. Baztanen hain errotua dagoen auzolanak ere zer edo zer lagundu du. «Ohiturak zer edo zer aldatu beharko lirake, eta alkate juradoen izaera indartu beharko luke Baztango Udalak».

Elizondoko alkate juradoak gauza onak ere azpimarratu ditu bi urte hauetan. Berarekin izan diren kargudunen lana go-

raipatu nahi du. Bere ustez, jende aunitz ezagutzeko balio izan dio postu honek, eta era berean herria hobeto ezagutu du. Aurten hautagai berria aurkeztuko den itxaropena dauka: «Oraindik ez dakigu ezer, jendea oso muku delako, baina ziur norbait aurkeztuko dela».

→ Rakel Goñi

herri aldizkariak

Edurne Elizondo

Frontoiak, herritarren bilgune

Pilotalekuen inguruan osatu du **Ttipi-ttapa** bere azken zenbakiko erreportaia, Aitor Arozena kazetariak idatzi artikularen bidez: «Norbaitek imajinatzen al du bere herria pilotalekurik gabe? Eskualdeko gehienak mende honetan eginak badira ere, edozein herriri zerbait faltako litzaiotke pilotalekurik ez balu. Bertan kirola egitea da beraien funtzio nagusia, baina gure herrietan bazkari-afariak, bertso saioak, kontzertuak, herri kirol saioak eta bertze mila ekitaldi antolatzeak aprobetxatzen dira. Ez da harriztea, beraz, 1997-1999 hi-

rurtekoan kirol arloan Nafarroan egin diren eraikuntza gehienak pilotalekuak izatea. Gure eskualdean dago horren adibiderik garbiena: frontoi berriak egiteaz gain (Legasakoa, adibidez), bertze aunitz berritu egin dira edo teiltatua eman zaie (Eratsun, Igantzi, Donamaria...) azken urteetan, urte guzian erabiltzeko modua izan dezaten».

«Baina pilotalekuak, frontis eta ezkerparetarekin, gaur egun ezagutzen ditugun bezala, ez dira aspaldiko kontua. Tiburtzio Arraztoa, Laxoa Elkarteko kideak aipatu

digunez, «ezker pareta 1870. urteaz geroztik sortutakoa da. Beraz, erraten ahal da gaur hedatuen dauden pilota modalitateak orduz geroztik sortutakoak direla: zesta-punta, joko-garbi, pala... Erremon-tea, adibidez, XX. mendekoa da, 1904. urtean sortu baitzen». «Ordura arte, pilotan aitzinez aitzin jokatzen zen, aurkariak —bakarka, binaka zein launaka— aurrez aurre zirela. Inguru honetako toponimian maiz xamar agertzen omen dira Pilotasoro eta gisako izenak, beraz, belagietan ere jokatzen zen bote luzean».



urdai
aren
mintzoa

Xabier Larraburu

Izarren liga

Astero-astero jokatzen dute Osasunakoek beraien partidua, eta, era berean, berdin-berdin idatzi behar dut nik astero-astero zutabetxo demoniokoa. Orain, harrigarria irudituko baldin bazaizue ere, zera esan behar dut: nire etxera sekulan ez dutela deitu hurrengo zutabeari begira ea nola eramaten ditudan entrenamenduak galdetzeraz. Sekulan ez! Igoal astearte batean jaiki eta ariketa batzuk egiten ari naizela ideiarene bat, edo metaforaren bat, eskolofilindratzen zait goitik behera, zeharo, eta hemen ez da deus ere ez pasatzen, inori ez zaio axolarik, eta, noski, iristen da ostirala eta irakurtzen duzue zutabetxo demoniokoa eta «gaurkoan ez du asmatu» esaten duzue zeuen kolkorako eta, klaro, nola asmatuko dut bada bada bada asteartean eskolofilindratutako metaforarekin atera bainaiz zelaira! Eta nor jabetzen da horretaz? Inor ez. Igoal asteazken batean, ariketak egin ondotik, Marengora joaten naiz eta bertan mozkortu eta kamareroekin kristoren iskanbila izaten dut eta atxilotzen naute, ileetatik tiraka, eta «amionehablesenvascocachocabron» esaka... Eta nori axola zaio? Inork irakurtzen al du hurrengo ostiralean zutabe demoniokoa «Xabier, zurekin gaude!» pankarta bat eskuan duelarik? Ez dut uste. Nola animatuko naiz bada? Ez al zarete konturatu ni ere nire Izarren Liga berezia jokatzen ari naizela? Eta horrela segituz gero (gol average negargarri honekin) hurrengo urtean maila bat baxuago jokatu beharko dudala? (maila bat baxuago! Ene, Jesus! ba al dago maila baxuagorik?!). Eta min handiena eragiten didana: ostiral arratsalde horietan egin ezin ditzakedan prentsurrekoak. Lotinak bai! Lotinak noski! Berak, gaizki joan bada kontua, dena argitu dezake. Eta nik? Zergatik ez? Nik ere nahi nuke zutabearen ondoko prentsurreko bat. Bertan txandala jantzita agertuko nintzake eta Elhuyarreko hiztegiarekin. Bertan Marengoko kamareroen kontra egingo nuke eta polizien txosten guztiak ezeztatuko. Bertan eskolofilindratutako metaforen plakak aurkeztuko nituzke, eta argazkilarien aurrean agertuko zer dela-eta ez dudan zutabearekin asmatu. Bertan nire aldeko pankartak bihotzez eskertuko nituzke. Bertan. Ai! Bertan! ●

Baztango hamar ikastetxe publikoek aldizkari elektronikoa dute Interneten

Baztango haurrak sarean dira. Haurrak ordenagailuen eta Interneten erabileran trebatzeko egitasmoan ari dira Baztango hamar eskola publikoak. Hamarren artean *K@zet@* izeneko aldizkari elektronikoa egiten dute, eta batzuek, Zigako kasu, webgune propioa dute. Baztan berdean arrunt ordenagailu guti dira etxeetan, eta klasean ezagutzen dute haurrek lehenbizikoz.

JOSU, KONTXI, JOXEAN, XABIER, IZASKUN, Xabier, Mikel, Cesar, Ixabel eta Ixiar. Zigako ikastetxe publikoan 3 eta 11 urte bitarteko hamar haur ari dira ikasten. Xabier Ballarena irakasleak gobernatzan ditu. «Hezkuntza pertsonalizatua eskaintzen diegu», erran du umorez.

Zaila da etxe handiosoetako Baztan berdea ordenagailuekin nahastu. Ballarenak egin du. Irakaskuntza du ofizioz, eta informatika afizioz. Ballarenak sartu ditu Baztango D ereduako hamar eskola publikoak Interneteko mundu elektronikoa.

«Iaz hasi ginen afera honekin», azaldu du Ballarenak. «Ziberipuiua izeneko proiektu bat muntatu genuen. Eskola guzien artean ipuin bat osatzea genuen xede. Horretarako, talde bakoitzak narrazioaren inguruko erabakiak hartu eta posta elektronikoz igorri behar zituen. Denen erabakiak kontuan hartuz ipuinaren puska guztiak osatu genituen». Ziberipuiua Oronozko webgunean da ikusgai.

Aldizkari elektronikoa

Ondoren *K@zet@* aldizkari elektronikoa proiektua etorri da. Bertan, hamar eskoletako ikasleek hainbat eduki paratu behar dituzte urtean zehar: ipuinak, errezetak, kantak, erreportaiak... Konparazio baterako, *K@zet@*-ren azken alean Erratzuko *Txori Xikia* ipuina irakur daiteke, baita Iruritaok Peio Añorga idazleari egindako elkarrizketa ere. Izan ere, Añorga ipuina kontatzen joan zen Iruritar, eta trukean haurrek elkarrizketa egin zioten. Zigaraino joan zen NAFARKARIAko kazetariari ere elkarrizketa egin zioten zigatarrek, eta hurrengo *K@zet@*-ren alean paratuko dute.

K@zet@-ren bidez, haurrek ordenagailuen eta Interneten baliabideak erabiltzen ikasten dute: e-posta, txata, bisita liburuak, webgunea, foroak... Era berean, eskolen arteko harremanean sakondu nahi dute teknologia berriak erabiliz. Hori guziaz Nafarroako Gobernuaren Teknologia Berriak eta Hezkuntza programaren baitan da. Gobernuak ikastetxe guzietan ordenagailuak paratu ditu, baita sarerako konexioa egin ere.

Irakasleen beldurra

Konexioa duela lauzpabortz urte instalatu zieten, baina ez zuten erabiltzen. «Haurrek orain arte ez dute ordenagailu bat ukitu, eta kostatzen zaie», erran du Ballarenak. «Kos-

tatzen zaigu, baina nik uste dut arazoa irakasleengan dagoela, ez dugula nahi, beldurra ematen baitigu, ea gaizki egingen ote dugun; bideoa programatzea bezala da. Haurrek ez dute halako arazorik. Berdin zaie, botoi bat sakatu eta aitzina».

Beldurra alde batera utzi eta badirudi baztandarrak, ikasle zein irakasle, Interneten sartu direla. «*K@zet@*-ren egitasmo honen bidez lortu nahi dugu egiten den guziaz funtzionalitatea izatea», dio Ballarenak. «Hala, errezeta bat egin eta webgunean paratzen dugu. Norbaitek ikusten du eta mezua bidaltzen du arras polita dela erranez. Haurrak motibatzeko modu bat da».


Dena dela, Baztanen arrunt ordenagailu guti daude Interneteko konexioa dutenak, eta zaila egiten da eskolakoen eta kanpoken arteko harreman elektronikoa sortzea. «Ikasle batek badu izeba bat posta duena eta hark igortzen dizkio mezuek», esplikatu du Ballarenak. «Bertzeek oraindik ez dute inor. Nik igortzen diet batzuetan postalen bat, agurren bat. Erabiliz ikasten da, baina horretarako behar duzu bertze norbait posta trukatzeko. Behintzat badakite zer den, eta inoiz erosten badute etxean anitzez errazago egingen zaie. Batzuek Olenzerori eskatu diote, baina ez dakit nik...».

Erabilera


Ordenagailuekin handienak ibiltzen dira, Mikel, Ixabel, Ixiar, Zesar eta Xabier. Bertzeak oraindik ez dira askorik ohartzten. «Titikienak nirekin ibiltzen dira», azaldu du Ballarenak. «Handiak bakarrik ibiltzen dira, baina oraindik ez dute batere kuriositatearik». Kontua da ordenagailua «lan» egiteko erabiltzen dutela eta, apika horregatik, ez dute sobera gustuko. Mikelek —9 urte— uste du «aski eta sobera» erabiltzen dutela ordenagailua. Are gehiago, Internet «txorakeria» dela dio. Ixiar —11 urte— eskribitzen aspertzen da, ez, ordea, Oronozkoekin *K@zet@*-ren bidez itsasontzien jokoan jostatzen edota Interneten gauzak «harrapatzen». Mikelek, gustuko ez izan arren, Olenzerori ordenagailua eskatu dio. «Hausteko nahi dut», dio. «Olenzero ez baita existitzen, apezak erran dit hori». Antza denez, Mikeli ez zaio ordenagailua gustatzen, nahiago du bertze edozerekin jostatu, baina Internetetik nabigatzeko tenorean bera da saga hartzen lehena. Eta bere atzetik, bertze guztiak.

→ Asier Azpilikueta

Baztandarrak ttikiak Interneten




Zigako eskolako ikasle handienak bakarrik ibiltzen dira ordenagailuekin. Titikiak dira askorik ohartzten, eta irakaslearekin batera aritzen dira. ● MIKEL SAIZ



Oronoz, aitzindari

Xabier Ballarena, Baztango eskoletako egitasmo elektronikoa guzietan aitzindaria, aurtengo Zigako ikastetxera etorri aitzin, Oronozkoan izan zen. Hori dela eta, Oronoz izan zen Baztango eskoletan webgunea izan zuen lehena. Ondoren, noski, Zigako etorri zen, Ballarenaren lekualdatzarekin batera.



Haurrak protagonista

Baztango eskoletako webguneetan haurrak dira protagonista. Ballarena irakasleak azaldu du: «Normalean ikasteetxeetako webguneetan hitz potoloak erabiltzen dituzte: filosofia, kurrikuluma... Publizitate hutsa dira. Gurea haurrei begira dago, haiek ikus eta erabil dezaten». Zigako haurrek euren argazkiak, biografiak, marrazkiak eta lanak paratzen dituzte webgunean




Baztango D ereduako hamar eskola publikoek ikasleak ordenagailuen erabileran trebatzeko egitasmoa dute, eta horren isla *K@zet@* aldizkari elektronikoa da. ● EGUNKARIA

Hamar eskolak sarera

Baztanen badira D ereduako hamar eskola haur eta lehen hezkuntzako haurrak biltzen dituztenak: Amaiur, Azpilikueta, Erratzu, Arizkun, Gartzain, Irurita, Arraioz, Oronoz, Almandoz eta Ziga. Eskola ttikiak dira denak. Iruritaokoa da handiena, eta 35 haur ditu; Arraiozkoak berriak, 7. Euren artean harreman handia dute, eta elkarrekin egiten dituzte lan gehienak. Klaustroa ere elkarrekin egiten dute, nahiz eta ofizialki baliok ez izan. Harreman horretan sakontzeko sortu dute *K@zet@* (www.pnte.cfnavarra.es/

kzeta). Baztango herri eskoletako aldizkari elektronikoa. Gainera, Oronoz eta Zigako eskoletan beren webgunea dute (www.pnte.cfnavarra.es/oronoz eta www.pnte.cfnavarra.es/cpzig). Zigako irakasle Xabier Ballarenak esplikatu duenez, Arraiozko eta Iruritaok webguneak ere sareratzeko prestatzen ari dira. «Hurrengo pausoa hori izanen da, eskola bakoitzak bere webgunea izatea», erran du. «Baina, horretarako, irakasleak Interneten mundu honetara erakarri behar dira».



Marrazkiak eta azalpenak

Zigako eskolaren webgunean ikasleek euren marrazkien gaineko azalpenak ematen dituzte. Hona hemean Izaskunek ondoko marrazkiaren inguruan eman duena: «Traktorea karreteran barna doaie». Josuren marrazkia ehunka zirkulu eta marra gorrik osatzen dute; eta azalpena: «Etxea eta ateka». Haurrek botatzen dutena, huraxe paratzen du irakasleak webgunean.

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Biba Xaho! Biba Eskual Herria!

Milurteko zahar honen azken mendea ahitzera doan honetan, zaharrak berri, eta etorriko zaigunaren modernitatearen ikurtzat har dezagun Agosti Xaho zuberotarra, gure lehenbiziko apurtzailea, gure lehenbiziko modernoa.



Jon Juaristik *El linaje de Aitor* 1987ko liburuan «*el precursor*» deitzen zuen Agosti Xaho zuberotarra. Hobe zitzaiokeen ausaz *erruduna* deitzea, buruan zeukana horixe baitzen doakai. Jaime Ignazio Del Burgoren pasadizoa gogorarazten digu honek, Aldundiko lehenakari izendatu berria karguaz jabetzera Karlos III.eko karrikako jauretzean Zigak eginiko Campionen margolanaren azpian goriki sututua oihuka hasi zenekoa: «Hori duk guztiaren erruduna, hori duk!».

Ez dugu Agosti Xahoren bizitzaz zein bere lanei buruzko lan monografiko sendorik eta gaurkoturik, oraino. Orain dela hamar bat urte Patri Urkizuk entsegu txikia taxutu zuen Xaho gaitzat harturik, Mikel Zarate Saria 1991n jaso zuena eta Euskaltzaindiak 1992an argitara eman zuena; alabaina, Xahok ikerketa lan sakonago eta maratzagoa merezi duela koan bagaude, dela soziologo, dela historialari edota dela filologoren batek egin beharreko tesi lan baten gaia aisa daitekeelarik. Ez liteke ideia txarra Zuberoa aldean fundazioen batek Xaho saria erakiko balu literatura edota bestelako arloren batean egini ko lanaren bat sariztatzeko. Tamalez, ezkor gara, eta lehenengo zaila bada, bigarrena are zailagoa dakusagu, areago, eta Juaristik maltzurki esan bezala, hainbatek Xaho baitu «*aprendiz de conspirador sobre cuya figura pesan aún tantas ingógnitas, llamado a convertirse en el Juan Bautista de aquel mestas del nacionalismo que se llamó Sabino Arana Goiri*».

Agosti Xaho Lagarde Atharratzen sortu zen 1811ko urriaren 10ean. Hamar urterekin Olorueko apezgaitegira joan zen bigarren mailako ikasketak burutzera. Handik Parisa joan zen, 1831n, legeak ez ezik, Frantziako hiriburuan ekialdeko hizkuntzak ere ikasi egin zituen Xahok Charles Nodier irakaskearen eskutik. Ikasketetan zein giro literarioetan behin trebaturik, Tolosara aldatu zen. Okzitaniako hiriburuan bere asmo literarioak *Revue des voyants* aldizkaria sortuz gauzatu zituen. Aldizkari horretan ateratako zenbait informazioengatik, aldiz, Tolosatik hanka egin behar izan zuen, berriz ere Zuberoara itzuliz. 1844an duela batean zauriturik, LespZs inprimatzailerak berekin eraman eta zaindu zuen. Lau urte beranduago, Baionan jada, *Ariel* aldizkari famatua argitaratzen hasi zenean, politikan sartu zen, alderdi errepublikanoaren

ordezkari gisa. Horregatik, Luis Napoleonek 1851n estatu kolpea eman zuenean Pirinioak igaro eta Gasteizen ezarri behar izan zuen bizitoki berria. Gasteizen labur jo zuen, bi urte eskas besterik ez baitzen egon. Baionara 1853an itzuli zen, *acte de soumission* sinatu ondoren, eta berriz ere ekintza politikoetan debekaturik izanik, bere hiztegia ontzeko aprobe txatu zituen bere azken urteak, langintza horretan zegoela, eta hortaz, hiztegiaren lana bukatzeko dexente falta zitzaiola zendu baitzen Xaho 1858ko urriaren 24an. Xahorena, bestalde ere eta ezagun denez, euskal historian agerian egini ko lehenbiziko hileta zibila izan zen. Herri suskripzioz ordainduta Roland eskultoreak egini ko oroitarria eraiki zitzaion, eta hiletaren predikua Reclus anarkistak ogutzi zuen.

Anitz idatzi zuen Xahok, eta ongi, gazte-gazte zenetik, erdaraz zein euskaraz. Euskal izkiriakintzan trebatze aldera *Preces Sancti Nersis Cantabrice* Nersesen otoiak euskaratu zituen, zubereraz, 1830 inguruan. Alabaina, bere lehenbiziko lan argitaratuak 1834an agertu ziren, frantsesez egini ko *Paroles dun Biskaién aux libéraux de la Reina Christine* eta *Paroles dun voyant en réponse aux paroles dun croyant* eta euskaraz taxuturiko *Azti-begia* ezaguna. *Azti-begia* zein *Ariel* aldizkarian agertu zituen bestelako euskal lanak, zorionez, bilduta eta elkarrekin argitaraturik badaude, Patri Urkizuren eskutik, nonbait egunean erabat gelditurik dirudien Euskal Editoreen Elkartearen Klasikoak sailean, 64. zenbakia-rekin. Bada non josta, beraz, mende akabera honetan!



panpilonia zirkus

Pello Argiñarena



Kalitatea da merkatuen berme nagusia. • MIKEL SAIZ

Kardua

Karduaren truke patatak. Kardua truke pezetak. Kardua truke Visa card. Kardua erakusten du giza zibilizazioaren bilakaera. Kardua jatea besta bihurtu da. Kardua usainean familiak bat egiten du. Gabonak dira kardua sasoia. Gabonak besta bihurtu dira. Gabonetan familiak bat egiten du. Kardua salgai dago merkatuan. Eros-tea besta bihurtu da. Gizarteak kontsumoarekin bat egiten du.

Argiñano sukaldariaren aholkuari kasu egin diogu oraino. Merkatura jo dugu Magdalenako baratzeetatik ekartzen duten kardua bila. Gabon gauerako kardua erosi ondoren, saltzaileen ordezkari Angel Obanosekin solasean aritu gara II. Zabalguneko merkatuan. «Iruñean badira beste bi udal merkatu, Santo Domingoko plaza zaharra eta Ermitagañako merkatu berria. Betiere, Amaia kalekoa da nagusia».

Berrehun lagun inguru ari dira bertan lanean, 76 saltokitan banatuta. Gabonetan kardua jaten duen familia bezalako da 53 urte bete dituen merkatua. «Langileon artean oso giro ona daukagu, eta bezeroekin harremana zuzena eta estua da. Haien izenak eta etxeko arazoak ezagutzen ditugu». Erosleen konfiantzaren truke kalitatea eskaintzen dute saltzaileek. Kalitatezko kardua. Bi aldeek konpromiso hori egunero berritzen dute.

Aspaldi berritu gabe dagoena merkatu bera da. «Ez dugu ate automatikoarik, zinpeko zaindaririk edota berogailurik jarri nahi. Bestela prezioek gora egingen lukete». Horrenbestez, kardua ere garestituko litzateke.

Negu garaiko tenperatura hotza hurbileko tratua berrotasunarekin uxatzen dute. Bertara jotzen duten gehienak emakumezkoak dira, baina asteburuetan egoera franko aldatzen da. «Gizonezko asko azaltzen da, baita izen eta kargu ezagun zenbait ere. Carlos Garaikoetxea, Nafarroako Gobernuako kontseilari zenbait, Lola Eguren, Espainiako gobernadorea, besteak beste».

Tamalez, gazte askorik ez da hurbiltzen atariak goizez bakarrik zabaltzen dituen merkatura. «Oraingo gazteek, gainera, nahi izaten dute erosketak asteen edo hamabostean behin hiperrean egitea». Dena den, azken urteotan elikaduraren kalitateari eta osasunari erreparatzen dion bezero klase bat erakartzea lortu dute. «Barazki eta fruta ekologikoa erostera datoz, jatorrizko izendapeneko haragia eskatzen dute, Ondarroa eta Paisaiatik ekarritako arrainak».

Tarteka ere gertatzen dira ezusteko egoerak. Azken asteotan, *behi eroen afera* dela eta, haragiaren salmenta franko jaitsi da arrandegien mesedetan. Kardua ere gehiago salduko dira.

Ziria

• Motxorrosolo •

Itsutasuna

Akitzearen mende honetan, Hipokratesen jarraitzaileek hainbat gaixotasun sendabidean jarri dute. Beste batzuek, aldiz, milurteko andana ezagutzeko sortuak dirudite. Konparazio baterako, errealitatearen aurrean anitzek erakutsi ohi duten itsutasuna. Oinarrizko osabidea ez omen da aski.

Juan Carlos Pikabea

MARGOLARIA

«Kolorea da garrantzitsuena, giro berezi bat sortzea»

ETXEKO GANBARA ERAKUSKETA areto zabal bilakatu du Pikabeak, bere koadroak nahi duenean erakusteko. Duela hogeitau urte sartu zen pinturaren munduan, eta egun, lanbide du. Bere burua inpresionistatzat jo eta kolorearen garrantzia nabarmendu du.

■ Zer bildu duzu erakusketan?

Azken hiru urteetako koadroak badira erakusketan, baina gehienak aurtengoak dira. Aurten egin ditut, adibidez, Iruñeko paisaiak agertzen dituzten koadro handiak, bai eta urmargoak ere. Aurten arte ez nituen akua-relak behin ere margotu.

■ Eta kontent al zara emaitzarekin?

Bai. Teknika frogatzen hasi nintzen eta hagitz gustura gelditu naiz. Koadro handi batek lan asko badu, eta denbora eskatzen du; urmargoekin, berriz, azkarrago egiten da lan. Lanbide guztietan bezala, pinturan ere denboraren poderioz gero eta gauza gehiago ikasten duzu, eta gauza zailagoetan edo gauza berrietan sartzen zara.

■ Lesaka inguruko, Iruñeko edo Bilboko paisaiak ageri dira zure koadroetan, bai eta hemendik kanpoko baten bat ere. Zein da zure lan egiteko modua? Kalera ateratzen al zara?

Saiatzen naiz kanpoan lan egiten, gauzak ikusten. Gehienbat hurbileko gauzak margotzen ditut, ezagutzen dudan argia eta ezagutzen dudan lurraldea agertzen dut. Bidasoaldeko argia eta giroa islatzen saiatzen naiz. Iruñeko edo Bilboko hiri paisaiak ere egiten ditut. Teknika aldetik lan ezberdina da: lan gehiago du arkitekturaren marrazkia egiteak, baina agian zailagoa da lortzea kolorearen bidez giro berezi hori. Margolariok beti dugu koadroa buruan; leku bat ikusten duzunean bozeto bat egin edo koadroan nola geldituko litzatekeen pentsatzen duzu. Ofizioak ematen dizu emaitzak agudoago lortzeko ahalmena.



● JOXE LACALLE

Lesakako bere etxean erakusketa zabaldu du Juan Carlos Pikabea margolari lesakarrak, hilaren 30a bitarte. Azken hiru urteetako koadroak bildu ditu, aurten egindako urmargoekin batera.

■ Urte batzuk pasatu dira zu Juantxo Larramendirekin (Juan Larramendiren semea) margotzen hasi zinetik. Zer iritzi duzu urteotan egindako lanaz?

Teknikan asko hobetu dudala uste dut, eta gero eta koadro hobek egiten ditudala. Teknika hobeto menperatzen duzu, gai zailagotan sartzen zara eta emaitza hobek lortzen dituzu. Edo horrela izan beharko luke, behintzat.

■ Duela hogeitau urte uste izan zenuen zure areto propioa izanaren zenuela eta pinturari esker biziko zinela?

Ezta pentsatu ere. Pinturan buru-belarri sartuta nabil azken lauzpabost urteetan. Duela hamar bat urte hasi nintzen fami-

..... ●
«Margolariok beti dugu koadroa buruan; leku bat ikusten duzunean bozeto bat egin edo koadroan nola geldituko litzatekeen pentsatzen duzu»
 ●

liaren zerrategian lanean, baina orduan ere lauzpabost ordu ematen nituen egunean margotzen. Pixkanaka gehiago murgilduz joan naiz, zerrategia utzi eta egun, pintura dut lanbide.

■ Bidasoako Eskolaz asko hitz egin da; Bidasoako Eskola baino Bidasoa ibaia dagoela erran izan duzu zuk.

Bai, nik Bidasoa hutsa margotzen dut. Jende anitz pasatzen da Bidasoa ingurutik, eta ez ditu ikusten ibaiak dituen koloreak. Begiak irekita margotu behar da, kolorea hor dago.

■ Kolorea da zuretzat garrantzitsuena?

Bai. Nik neure burua inpresionistatzat joko nuke. Marrazkiak garrantzia badu, baina garrantzitsuagoa da kolorea, emaitza, lortzen duzun giroa. Iruñeko zeruak ez dira hemengoak bezalakoak, eta nik koadroetan hori islatzen dut. Ikusleari koadroaren barruan dagoela sentiarazi nahi diot nire lanaren bitartez.

■ Eskola egon edo ez egon, egia da Baztan eta Bortzietan pinturarako zaletasun handia izan dela beti, margolari ezagun anitz

soslaia

Juan Carlos Pikabea bere kabuz hasi zen margotzen, baina duela hogeitau urte, Juantxo Larramendi margolariak lesakarraren lana ikusi eta harekin hasi zen ikasten.

«Teknika menperatu ondoren, norberak bere nortasuna garatzen du bere koadroetan. Lanak ematen du ezagutza».

Lehen koadroa 1984. urtean saldu zuen Pikabeak, Herri Urratsen.

«Artisauen azoka zegoen eta hantxe nengoen ni nire koadroekin. Egun hartan saldu nuen lehendabizikoa».

Euskal Herrian eta hemendik kanpo erakusketa ugari egin du lesakarrak, eta, orain, bere etxean du erakusketa aretoa. Bere koadroak nahi duenean erakusteko askatasuna ematen dio horrek.

badela. Mugimendu horrek jarraipenik duela uste duzu, hau da, agertzen ari al dira margolari berriak?

Nik ikusten dut zaletasun handia dagoela. Baina uste dut le-

henbiziko urratsak egiteko zailtasun handiak dituztela gazteek. Orain hagitz zaila da erakusketa bat egitea artista ezaguna ez bazara. Gauza garrantzitsua da halaber hasten zarenean zure urratsak zuzenduko dituen irakasle on bat izatea; aukera ematen du horrek norberak bere burua aurkitzeko.

■ Baztan-Bidasoa alde hone-tap, Apezetxea eta Larramendi izan dira margolari askoren irakasle, eta beste batzuk haien aurretik.

Bai, eta agian horrek lagundu du pintura hemen zabaltzen. Harrigarria baita hain eremu txikitik horrenbertze margolari egotea. Kopuruaz gain, kalitatea ere badago, gainera. Nik Baztango margolariekin harreman handia dut, eta, haiek egiten duten bezala, nik ere udan nire etxeko atea zabaltzeko erraten didate behin eta berriz. Egia da inguru honetan sortu dela nola-baiteko kultur ibilbide bat. Jendea propio etortzen da hemengo margolarien lana ikustera. Uste dut Bidasoa eredu dela Euskal Herrian.

—> Edurne Elizondo



Nafar Kronika

Martxelo Sotes

Misterioak

Jaiotza jarriko dute alkatearen bulegoan eta hantxe egonen da Eguberrietan. Hala zioen hedabideetara igorritako prentsa ohar burrunbatsu batek. Berrikuntza garrantzitsua, irunseme-alabei bizitza zeharo aldatuko diguna.

Jaiotzak Samariako ibilbide biblikoa du paisaia modura, eta bertan agertzen diren gizon-emakumeen iruditxoak Murtziako Eskolak eginikoak dira. Agian ez dira hiriburuko Udalan jartzen ahal diren egokienak.

Belengo atariaren ondoan ohiko aingerutxo hori, «aintza» edo gloria hitza oihal baten gainean idatzia duen hori, Iruñeko pertsonaia nonahiko edo omnipresente horietako batekin ordezkaturiko dugu. Alde urdina gainbegiratzeko duten sasiudaltzain horietako bat. Hau da zonalde urdina edo ORA horretaz arduratzen den horietako bat. Beraz ORA pro nobis, eraman dezake idatzia oihaltxoan.

Errege Magoak jarriko genituzke (Iholanda Bartzina oso monarkikoa izan da seguruenik; Olentzero errepublikanoegia da nonbait); hiru Baltasar, Zagit edo Mesonen ibiltzen diren mutiko beltz itxuroso horietako hiru. Bestela ere hortxe genituzke eredu, *La Farola*, *la revista que más mola* saltzen duten errumaniarrak eta albaniarrak, krabelin eta arrosa saltzaile korearrak eta indiarrak. Iruñea, oso polita izateaz gain, kosmo-polita dela erakutsiz. Erregeen gamelua berehala aurkituko ditugu.

Beste jaiotza eredu bat: Arrotxapea auzoan kokaturikoa, festak egitea debekatu zieten eguna islatzen duena. Hori bai belen bizia. Pontzio Pilatosen erromatarrak eta guzti.

Segur asko gure alkateak ez ditu iradokizun hauek gustuko izanen. Azken proposamena egiten diogu. Paisaia, pertsonaia eta gainontzeko zertzeladak berak hauta ditzala baina haurtxoa bederen egungo beste edozein ikonorekin truka dezala. Benetan egungo bizitzaren sinboloa dena. Telefono mugikorra, Euroa, ordenagailu Internet-duna, tamagotxia, Pokemon esponjiformea... Eta idia eta mandoa? Idirik ez, Iruñean zezena, ahal dela, karrikiri bat. Mandoa ere aukeran: udaltzainen burua edo mandoa, edota egungo benetako mandoa, hau da, telebistarena, zapping egiteko prest. Hauexek gure proposamenak. Iruñeko Udalak kontuan hartuko dituen? Hori bai misterioa.

gure aukerak

OLENTZERO

Aranguren: Bihar, larunbatetik, Olentzero **Taxoareko** kontzejuko lokaletan izanen da 17:00etan. Igandean, 17:30ean, **Aranguren** herri ondoko menditik jaitziko da, Altxeta txistulari taldea lagun. 18:15ean **Labianoko** ermitara ailegatuko da eta, ordu bete geroago, **Mutiloabeitiko** eskoletako zubitik pasatuko da.

Areso: Olentzerok oparitxoak banatuko ditu igandean, 12:00etan, eskolan, eta 18:30ean asto gainean ailegatuko da herriko plazara.

Barañain: Olentzero herriko karriketarik ibiliko da igandean. 18:00etan abiatuko da kultur etxetik, Barañaingo herri kolektiboekin batera.

Baztan: Olentzerok **Amaiurko** eskolan hasiko du bere ibilbidea, ostiralean, goizeko hamaiketan. Igandean **Elizondoko** ikastolatik aterako da, arratsaldeko bostetan; 17:01ean **Iruiritan** izanen da; 18:00etan **Arizkungo** plazan; eta 19:00etan **Arraiozen**.

Bera: Igandean, 16:00etatik aurrera, ttikien olentzeroak kalez kale ibiliko dira, 17:30ean Herriko Etxeko plazan Olentzero nagusiarekin elkartuko diren arte. Ikatza banatu eta gero kalez kale ibiliko da hori ere, asto gainean.

Burlata: Herriko zubi zaharretik 18:00etan eta herriko karriketarik ibiliko da igandean Olentzero Zaldia karrikatik Ezkabazabal plazarainoko bidean.

Leitza: Igandean, goizeko hamabietan, eskolako haurrekin bilduko da Olentzero, eta 18:00etan herrira hurbilduko da. Eskolako gaztetxo batek

bertsoz agurra egingen dio eta, ondoren, txistulariekin eta Azketa abesbatzarekin herrian barrena ibiliko da.

Lesaka: Nafarroako olentzeroetan olentzeroena igandean aterako da, 12:00etan, Plaza Zaharretik. Bertan jaiotza lehiaketa ere egingen dute.

Lizarrak: Igandean, 17:30ean, Lizarrak ikastolatik abiatuko da Olentzero asto gainean herriko karrika nagusietatik paseatzeko.

Sakana: Olentzero arratsaldeko seietan **Altsasuko** foruen plazan izanen da igandean. 18:01ean **Irañetan** izanen da

eta 19:00etan, **Etxarri-Aranatzen**.

Uhartea: Igandean, 16:30ean, txokolatada egingen dute Berdintasuna elkarteak. Ondoren musika izanen da, eta 19:00etan iritsiko da Olentzero herriko karriketaren barrena ibiltzeko.

Zangoza: Olentzero Ttikia gaur aterako da, 11:30ean, ikastolatik. Arkupeetan hamaiketako izanen da. Olentzero Handiak, berriz, igandean egingen du ohiko ibilbidea, 20:00etan hasita.

Zizur Nagusia: Kontzeju Zaharretik aterako da Olentzero

(Alde Zaharra), igandean, 17:00etan, eta 19:00etan igerilekuetara ailegatuko da.

PAILAZOAK

Zizur Nagusia: Takolo, Pirritx eta Porrotzek **Parrandan** ikuskizuna eskainiko dute gaur, 17:00etan eta 19:00etan, frontoi handian.

ZINEMA

Barañain: Ostegunean, **Gezi urdina** haurrentzako filma pantailaratuko dute Kultur Etxean, 12:00etan.

JOXE LACALLE



Horra, horra gure zer?

Olentzero, gure tripazaku maitagarria, Azkoien herrira ailegatuko zaigu aurten lehenbizikoz. Eta herriko bizitza baketsua aztoratu egin omen du. Azkoien batzuk alde eta beste batzuk kontra agertu zaizkigu; eta kontra daudenak, Bizarzuri cocacoolazalearen alde. «Olentzero Nafarroako iparraldeko ikurra da, eta ez Erriberakoa», eta gisako argudioak erabili dituzte. «Lekuz kanpo» dagoela, alegia. Olentzero Lesakatik kanpo ikustea Iruñeko erraldoiak sanferminetatik kanpo ikustea bezain desegoki ikusten dute batzuek. Baina Iruñeko konpartsako erraldoiak uztailean ez ezik San Saturnino egunean ere ateratzen dituzte paseatzera.

Balkoiko andreak behin eta berriz esplikatu zion txakurrari, baina hark ez zuen ulertu. «Ez, ez, ez, Afrikako erregina ezin dute azaroan atera», pentsatu zuen. «Ez, ez, ez, Olentzero ezin dute Azkoienerraino ekarri», pentsatu dute besteek.